



# Profesionalizaziorako dokumentuak

Gizarte hezkuntzaren definizioa.

Gizarte hezitzailearen kode deontologikoa.

Gizarte hezitzailearen funtzio eta gaitasunen katalogoa.



**ASEDES**  
asociación estatal  
de educación social



**CGCEES**  
Consejo General de Colegios de  
Educadoras y Educadores Sociales





ARGITARATZEA:



COLEGIO OFICIAL DE EDUCADORAS Y  
EDUCADORES SOCIALES DE NAVARRA  
NAFARROAKO GIZARTE HEZITZAILEEN  
ELKARGO OFIZIALA

GIZARTE HEZITZAILEEN  
ELKARGO OFIZIALA  
COLEGIO DE EDUCADORAS  
Y EDUCADORES SOCIALES  
DEL PAIS VASCO

GHEE  
CEESPV



COESNA / NAGIHEO

GHEE / CEESPV

ASEDES

CGCEES

TRADUCCIÓN:

BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA



## **PROFESIONALIZAZIORAKO DOKUMENTUAK**

- GIZARTE HEZKUNTZAREN DEFINIZIOA ..... 7
- GIZARTE HEZITZAILEAREN KODE DEONTOLOGIKOA.....17
- GIZARTE HEZITZAILEAREN FUNTZIO ETA GAITASUNEN KATALOGOA..... 31





## aurkezpena

**K**ode Dentologikoa, Gizarte hezkuntza lanbidearen definizioa, Gizarte hezitzaileen eta beren lanbidearen araberako Egiteko eta Arduren Katalogoa, horra Gizarte Hezitzailearen irudiaren kultura eta nortasuna zertan diren zehazteko oinarria eskaintzen diguten funtsezko hiru dokumentuak.

Ugari idatzi da aipaturiko dokumentu horiei guztiei buruz, baina bat etorri dira gizarte hezkuntzan ari diren profesionalak eta ordezkari diren erakundeak berezko dokumentuak sortu beharra azpimarratzerakoan. Foru askotan ohartarazi digute gizarte hezitzaileek oinarrizko testurik ez dagoela eta biziki garrantzitsua dela beren lan-erakundeek horrelakoak prestatzea, adostea eta berrestea.

Estatuko Gizarte hezkuntzako Erakundeen Elkarteak (EGHEE – ASEDES) 2000. urtearen hasieratik egin zuen bere eskari hau eta, estatu mailako erakundea izanik (Estatu osoan ari diren elkarte eta kolegio profesional guztien elkarte da) eta ondoko batzarretan onarturiko lan-plangintzei aginduak beterik, hiru dokumentu hauen prestaera kolektiboa ziurtatuko zuen jardunbideari ekin zion.

Egun, Elkarteak hasi zenetik zazpigarren urtea bete delarik, batera aurkeztuko ditugu igaro den aldi honetan osatu ditugun hiru dokumentuak. Lan konplexu baten emaitza dira inolaz ere, bestelakoak izan dira egiteko horretan igaro diren etapak eta prozesuak, eta aberatsagoak eta osoagoak dira beraz.

Batera aurkeztuko ditugu dokumentuak, une eta gune ezin egokiagoan gainera, «Profesionalizazioa: lanbide baten ibilbideak eta erretratuak» goiburutzat hartu duen Estatuko Gizarte Hezitzaileen 5. Batzarrean hain zuzen ere.



Gida eta erreferentzia-testutzat jotzen dugu aurkeztuko ditugun dokumentuetako bakoitza, baina etorkizunean ere berrikusi ahal izango diren dokumentu biziak dira nolahi ere. Lanbidearen betekizun eta ekarri berrietara egokitu behar dira dokumentu hauek, haien azterketak eta erabilerak, haien gaineko goioetak, lanaren arian eskatuko duten haritik.

Hona bada EGHEE – ASEDES Elkarteak Kolegioen Kontseilu Gorenari egiten dion legatua. Kolegioen titularitatea jaso du erakunde horrek, bai eta, harekin batean, gure lanbideak eta gure elkarte-partaidetzak hedakunde, eztabaida eta berrikuste kritikorako berezko duten joerari segida emateko erantzukizuna ere.

Biziki eskertu nahi dugu lerro hauetatik lorpen honen alde guztiok eginiko ahalegina, gogoan zauzkategu prozesu honen aitzindari izan zareten pertsonak eta erakundeak. Era berean, bihoa gure aipamen berezia prozesu honetan hainbat erakundetatik parte hartu duten adituei, norberaren protagonismoa bazter utzi eta guztion arteko eraikuntzaren alde saiatu diren aldetik.

Gure lanaren aldeko grina sano batek, gure lan gizartean ezinbestekoa dela jakiteak, ekarri duen ahalegin handi zabalari esker gara egun gure lanbidea egituratzeko ezinbesteko ditugun oinarrizko hiru dokumentu hauen jabe.

Toledo. 2007ko iraila.

Sin. Flor Hoyos Alarte

EGHEE – ASEDES Elkarteko Lehendakaria

# 1. Gizarte hezkuntzaren definizioa

## 1. ATARIKOA

Sortu zenetik daki EGHEE – ASEDES Elkarteak gure lanbidearen egituratze eta garapenari begira nolako garrantzia duen profesionalizaziorako hiru dokumentuen jabe izateak (Gizarte Hezkuntza lanbidearen definizioa, Gizarte Hezitzaileen Egiteko eta Arduren Katalogoa, eta Gizarte Hezitzailearen Kode Deontologikoa). Errealitate horren aurrean, Estatu osoan ari diren elkarte eta kolegio profesional guztien erreferentziazko elkarte den aldetik, lanbatzorde eta taldeak sustatu eta bultzatu zituen EGHEE – ASEDES Elkarteak hiru dokumentu horien prestakuntzari begira. Ikerketa, gogoeta eta lan arduratsua izan dira egiteko garrantzitsu honen abiapuntu eta oinarri nagusiak.

Argi eta garbi esan dezagun Gizarte hezkuntzaren molde bateko eta besteko definizioak izan eta izango direla beti, haren araberrako lanbidearen garapenak ukitzen dituen esparru eta arlo guztietatik. Maila historikoan, kolegio aurreko hiru bideetan –animazio sozio-kulturala, hezkuntza berezia eta helduen hezkuntza– arlo bakoitzari zegozkion definizioak ekar genitzake gogora. Aintzat hartzeakoak genituzke, halaber, Gizarte Hezitzailearen inguruan beste arlo eta esparru batzuetan, hala nola irakaskuntzan, lan-arloan eta legerian, egiten diren azalpenak. Duen garrantzia dela-eta, aipamen gehien jaso duen arloa dugu legeria, lanbide honetan diharduen profesionalaren prestakuntzari begira behar direnez bereziki arduratu den aldetik. Luze jo zuen prestakuntza hura zertan zetzan guztiz zehaztu arte, eta itxura eman zion azkenean ahalegin hari





1991ko urriaren 10eko Errege Dekretuak, Gizarte hezkuntzarako Diplomatura sortuaz.

Bat zetozen, ordea, Gizarte Hezitzaile eta haien ordezkari diren erakunde profesional guzti-guztiak, Gizarte Hezkuntzaren berezko definiziorik, profesionalak berek eta berentzat eginiko definiziorik, ez zutela ohar egiterakoan, beren lanbidean bideratzen dituzten egiteko desberdin horiek guztiak identifikatu eta ordenatuko zituzkeen definizioaren premia sumatzen baitzuten. Ezinbestekoa zen, beraz, kolektiboak berak berretsitako definizio bat, lana eta egitekoak bideratzen diren arloak eta esparruak gaindituko zituen, gizarte alorreko beste profesional batzuekin partekatua baitira horietako asko. Azken batean, Gizarte Hezitzaileari dagokion estereotipo profesionala, haren lanbidearen araberako erantzukizunak, haren jardunaren helburuak behar bezala adierazi eta erakutsiko zuen definizioa.

Halatan, EGHEE – ASEDES Elkartek, mandatua profesional guztiei oro har egin eta gero, bultzatu zuen talde baten lana dugu ondoren aurkeztuko dugun dokumentua. Hona hemen lan haren helburua: gizarte hezitzaileen lanbidearen berezko definizioa, kolektibo horri garatzeko eta profesional gisa kontuan hartua izateko aukera errealak emango dizkiona. APESCAM taldeak (Asociación Profesional de Educadores Sociales de Castilla-La Mancha), CESCLM (Colegio Oficial de Educadores Sociales de Castilla-La Mancha) egun, hartu zuen bere gain egiteko hori 2002an, eta segida eman zien Gaztela-Mantxako erakunde horren Prestakuntza Iraunkorrerako Taldeak Gizarte Hezitzailearen lanbide-jardunaren berezko edukiaren gainean aitzinatu eta bideraturiko ikerketa –lanei eta gogoetei. Mandatu hartatik<sup>1</sup> eta lan hura garatu zen testuingurutik sortu da Gizarte Hezkuntza lanbidearen lehenengo definizioa, kolektibo hau presentzia maila zehatz eta egokiago batez hornitu duena, azkenaldi honetan arlo horretako lanbideetatik eta instituzio eta oro har hiritarrendandik galde egin bezala.

Kolektibo osoa bere lanbidearen definizio honen jabe delarik, gorputza eman dion dokumentua hedatzeko eta berrikusteko epea zabaldu da orain. Gonbitea luzatu nahi diegu profesional guztiei gizarte hezitzailearen nortasun eta kulturaren inguruko gogoeta-prozesu bizi honetan parte har dezaten,

<sup>1</sup> 2002. urtean, azaroaren 30ean Toledon eginiko Batzar Nagusian, APESCAM, egungo CESLM, elkartearen Prestakuntza Iraunkorrerako Taldeari agindu zion EGHEE - ASEDES elkarteak Gizarte Hezkuntza lanbidearen definiziorako lehen dokumentu bat idazteko. 2003ko martxoaren 3an, Bartzelonan egin zen Batzar Nagusian, aurkeztu zitzaizen estatuko erakunde guztiei eta urtebeteko epea xedatu zen orobat alegazioetarako. Haren ondoan, 2004ko otsailaren 28an Toledon egin zen Batzar Nagusian, berretsi eta betikoz onartu zuen definizio hura, lanbidearen lehen Kode Deontologikoarekin batean, EGHEE - ASEDES elkartearen Batzar Nagusiak.



jakinik Estatuko erakunde eta kolegio profesional guztietan bideratuko dela, maila batean nahiz bestean. Bestela ezin eta presente egongo da, halaber, gogoeta hau Estatuko Gizarte Hezitzaileen Batzarretan, definizio horren eta lanbidearen beste oinarrizko egituratze-dokumentuen aurkezpen, berrikuste eta eguneratzerako forua diren aldetik.

Gizarte Hezkuntza lanbidearen definizioa, Gizarte Hezitzaileen Egiteko eta Arduren Katalogoa, eta Gizarte Hezitzailearen Kode Deontologikoa, horra gure lanbideak egun duen euskarri nagusietako bat. Hain zuzen ere, Gizarte Hezkuntzaren garapena Estatuan eta Europako Espazioan aintzat hartzeko ezinbesteko diren lau erreferentzia-puntuak dira egun, euskarri onekin batean, unibertsitate-ikasketetan nortasuna aitortu zaien ezagutza-multzo berezia, egungo Gizarte Hezkuntzaren oinarriak finkatzen lagundu duen ibilbide historikoa, eta Kolegio eta Elkarte Profesionalen bitartez egokiro antolatu den kolektibo profesional baten presentzia. Oinarria eskaintzen du lan honek Kolegioen Kontseilu Orokorrak bideratu beharreko lanari segida emateko, biziki erraztuko baitute dokumentu hauek haren jarduera instituzioen eta konfiantza eman dioten profesionalen aurrean.

## 2. AURKEZPENA

EGHEE – ASEDES eta APESCAM elkarteek gure lanbide hasi berriaren etengabeko eraikuntza-prozesua egokiro sustatzeko bizi izan duten kezkarri erantzuten dio dokumentu honek. Gizarte hezitzaileen erakundeak ordezkatzeko dituen estatu elkarteak den aldetik, egun Gizarte Hezkuntzarako profesional baten inguruan egin litekeen definizio ulergarriena eskatu du lehen erakundeak. APESCAM elkarteak, bestalde, mandatu hori jaso eta prestakuntza iraunkorrerako taldeak hilabete batzuk lehenagotik bideratzen ari zen egitekoen barrukotzat hartu du<sup>2</sup>.

Halatan, ordura arteko definizioak berrikusten hasi ginen orduan, eta haien kontzeptualizazioan oinarrizko bi ildo nagusi zeudela ohartu ginen berehala. Gizarte hezitzaileen espezializazioa lan-arloen edo helburu dituzten pertsona-multzoen arabera areagotzen duten definizioekin egin genuen aurrenik topo:

2 APESCAM (Asociación Profesional de Educadores Sociales de Castilla La Mancha) elkarteak bazkide guztien partaidetzarako ateak zabaldu ditu Prestakuntza Iraunkorrerako Taldeak. Urteak joan eta urteak etorri eduki epistemologiko, teoriko eta metodologikoen batera bideratu du estatu mailako gizarte hezkuntzaren profesionalizaziorako prozesuan ezinbestekoa den lan teorikoa.



«pertsona helduen hezkuntza, gizarte-heziketa ekimena, heziketa ez formala». Bestalde, gizarte eta heziketa jardueraren bidez lortu nahi diren helburuak hartzen ditu aintzat beste definizio moldeak, adibidez: gizarte hezkuntza gizarte-dinamika gisa hartuta, gizarteratzea, gizarte-gaitasun eskuratzea, herritarren prestakuntza politikoa... (Petrus, 1997).

Gure ekarrian, 1991ko dekretuak esparru juridikoan erdietsi zuenaren gaineko begirada profesionalizatzailea egituratuko lukeen «sintensi-kontzeptu» gisa saiatu gara Gizarte Hezkuntza definitzen. Badugu geure lanbideari garatzeko aukera eskaintzen dion esparru juridiko bat, hau da, halako araudi maila lortu dugu lan honen garapenari begira eta garrantzizko elementu profesionalizatzailea da hori zalantzarik gabe. Baina urrats bat baizik ez da hori lanbide baten eraikuntzan. Deontologikoa ez ezik, esparru epistemologikoa eta etikoa ere formalizatu gabe dira, eta horrela ezinezkoa da gure geografian han eta hemen ugaltzen ari diren gizarte eta hezkuntza praktika horien arabera aniztasun konplexu horretatik ageriko moduan gorpuzten ari den «nortasun profesionala» zehaztea eta eraikitzea. Garrantzitsua da horretarako lanbidearen ideia gizarte hezitzailearen hezkuntza praktikatik bereiztea.

Bigarrena azaldu nahi izatea medikuntzaren espezialitate guztiak azaldu nahi izatearen pareko egitekoa litzateke: Sisiforen lana inolaz ere. Hala eta guztiz ere, mediku edo sendagiletzat, pertsonen osasunaren zerbitzuan diharduten profesionaltzat, dute beren burua haren barruko espezialista guztiek, ohar berezirik egin gabe norberaren gaitasunen arabera esparru bereziei. Horrexegatik, hain zuzen ere, zentratu gara lehenengoan: aldeak egituratuko dituen definizioa aurkeztu nahi izan dugu, Gizarte Hezkuntza lanbide gisa hartuko duen definizioa. Gidari izan ditugu galdera batzuk arazo hauei irtenbidea bilatzerakoan: Nolako profesionala da gizarte hezitzailea? Hezkuntza edo gizarte profesionala? Zeren eta noren zerbitzuan? (García Molina, 2003b).

### **Halatan, definizio bat eraikitzea zen planteamendua:**


1. Egungoa, egunean gaurkotua.
2. Gizarte Hezkuntzaren barruan lehen bereizten ziren irudiak eta egitekoak gainditu eta, aldi berean, integratuko dituen.
3. Gure lanbideari izatea eskaintzen dioten esparruak eta loturak, hala



nola ez-formal, informal, «eskolaz kanpoko» edo «gizarte zerbitzu hutsen» araberakoa, gaingidituko dituen.

### 3. GIZARTE HEZKUNTZAREN DEFINIZIOA

Ardatz bikoitza dago definizio honen oinarritzko kontzeptualizazioan:



Halatan, hona hemen Gizarte Hezkuntzaren definizioa:

Herritarren eskubidea, izaera pedagogikoko lanbide batez gauzatzen dena. Gizarte hezitzailearen gaitasuneko esparrukoak dira lanbide horren araberako hezkuntza-testuinguruak eta bitartekaritza eta prestakuntza-jarduerak, eta honako balio hauek bultzatzen ditu:

- Hezkuntzaren subjektua gizarte sareetara bideratzea, hau da, haren gizarteratzearen eta gizarte zirkulazioaren garapena.
- Kulturaren eta gizartearen sustapena, kultura-ondasunak eskuratzeko aukera berrietara egiten den zabaltze lan gisa, gizartean hezkuntza, lan, aisia eta partaidetzarako aukera eta ikuspegiak zabaltzeko.

### 4. DEFINIZIOAREN EUSKARRIAK

#### Zuzenbidea:

Bizikidetzaren araberako arazoan aurreko erantzukizun publikoaren kontzientzia, gizarte baztertze eta marjinazio mota berrien sorrera, eta ondasunak guztiok modu berdinagoan partekatuko ditugun mundua eraiki beharra, horra gizarte hezkuntzak gure herrian azkenaldi honetan gizartean irabazi duen garrantzia azaltzen eta justifikatzen duten faktoreetako batzuk.



Zuzenbide eta Ongizatearen Estatuan bizi garen honetan, arras ugalduta dira gizarte-hezkuntzaren alorreko egitekoen eskaria eta eskaintza, eta gizarte espazio berriak zabaldu dira hezkuntza premiei erantzuteko, gizarte bizitzarako sarbide berrietarako bidea urratzeko. Zentzu honetan, argi eta garbi esan dezakegu eskolaren ez beste ezeren edo inoren ondarea izateari utzi diola eskolak.

Zuzenbide Estatuaren funtsezko balioen zerbitzuan jardungo duen hezkuntza-prestazioa da gure iritziz gizarte hezkuntza: herritar guztien berdintasuna, gizarte justizian ahalik eta kuota gorenak erdiestea eta kontzientzia demokratikoaren garapen osoa. Halatan, herritarren eskubidea da gure ustez hezkuntza, horrelakotzat hartzen baitute nazioarteko, nazio eta autonomia erkidegoetako esparru juridikoek. Hona hemen horietako garrantzitsuenak:

- Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, 1948koa eta gure herrian 1976an berretsia. Honela dio haren 26. Artikuluak:
  1. «Pertsona orok du hezkuntza-eskubidea. Hezkuntza dohainekoa izango da oinarrizko ikasketei dagokienez behintzat. Oinarrizko ikasketak egitea derrigorrezkoa izango da; heziketa teknikoa eta lanbiderakoa, orokorra; eta denek izango dute goi-mailako ikasketak egiteko aukera bera, norberaren merezimenduen arabera.
  2. Hezkuntzaren helburua giza nortasuna guztiz garatzea izango da eta giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen errespetua indartzea; herrialde, arraza eta erlijio guztien arteko elkar-ulertze, jasankortasun eta adiskidetasunaren alde egingo du; eta Nazio Batuen jarduna bultzatuko du, bakeak iraun dezan.»
- Espainiako Konstituzioa, 1978koa. Honela dio haren 27. Artikuluak:
  1. «Guztiak dute hezkuntzarako eskubidea. Irakaskuntzaren askatasuna aitortzen da.
  2. Hezkuntzak, helburu bezala, giza nortasunaren aurreramen osoa, bizikidetasunerako printzipio demokratikoak eta funtsezko eskubideak eta askatasunak errespetatuz.»

Halatan, denok dugu hezkuntzarako eskubidea, eskubide hori demokratikoa



den aldetik. Eskubide horretaz baliatu behar lukete beren garaiko kulturaren txertatu eta barruratu nahi duten pertsonak et taldeak (Sáez, 2003; García Molina, 2003a).

## Lanbidea

Testuinguru geografiko jakin batean, gizarte, kultura, politika eta ekonomia baldintza berezien mende, lanbide batzuek, kopuruan eta kalitatean maila gero eta gorena erdiestearren, bideratzen duten bilaketa eta hobekuntza prozesua. Haien egonkortasun mailaren berri ematen dizkiguten baliabideez hornitzen horretarako. Hona hemen zein diren, Rieraren arabera (1998):

- Lanbide bakoitzak bere esparruan bideratzen dituen zientzia-ikerketen eta lan teorikoaren ondorioz gorpuzturiko ezagutza multzo berezi baten presentzia (Gizarte Pedagogia gure kasuan).
- Prestakuntza berezi horretaz jabetu den komunitatearen presentzia (Gizarte Hezkuntzarako Diplomatura).
- Planteamendu komunak eta, interbentzio profesionalaren arloan, oinarri tekniko bereziak dituzten funtzio publiko zehatzen garapena, bideraturiko lanaren truke ordainsari ekonomikoa aitortzen zaiena, eta bezero edo erabiltzaileen aurrean lanbide-konpromiso etiko bat hartzea eskatzen duena.
- Talde profesional horretarako barne araudi bat egotea, horrenbestez bideratu ahal izango baita auto-kontrola kolektibo profesional honen partaideen aldetik (kolegio profesionalak).

Irizpide honetatik abiatuta, honako lorpen hauek egin dira profesionalizazio-prozesu kuantitatiboan (Sáez, 1998 y 2003):

- Prestakuntza eta ikasketen ezagutza ofiziala eta titulazio akademikoa.
- Kode Deontologikoaren formulaziorako prozesua hasia.
- Kolegio eta elkarte profesionalen sorrera.

Profesionalizazio kualitatiborako prozesuak, ordea, praxiaren mailak hartzen



ditu bereziki kontuan, hala gizarte hezitzaileok gure lanpostuetako jarduna hobetzeko erabiltzen ditugun aukeren alorrean nola lanean aintzat hartzen ditugun dinamika horietan guztietan, eta bereziki hartzen dugun kontuan:

- Nola eta zer helbururi begira bideratzen den lanbidea.
- Zer ikuspegi duen profesionalak bere praxiaz.
- Plataformen erabilera eta sorrera, Gizarte Hezkuntzaren munduaren beharra galde egiten duen aniztasuna aztertu eta ikertu, proposatu eta eraiki, interpretatu eta ebaluatu ahal izateko.

Aurrekoaren ildotik aurrera eginik, eraikitzen ari den lanbide berri samartzat hartu beharra dago inolaz ere Gizarte Hezkuntza, eta dinamika horretan partaide diren gizarte aktore batzuekin (okupazio-taldea, gizarte politikak, unibertsitatea eta lan-merkatua) lotu beharra dago haren profesionalizazioa (Sáez, 2003).

### **Izaera pedagogikoa**

Gizarte Pedagogia Gizarte Hezkuntza aztergai hartzen duen zientzia eta diziplina delako gure ustetan, ezagutza-ereduak eta hezkuntzaren praxirako metodologiak eta teknikak eskaintzen dituen aldetik. Ezagutza-arlo honen bitartez, hezkuntza-jardunerako gaitasun intelektual eta teknikoak eskuartzeko aukera emango diguten ezagutza berezi batzuk eskuratu ahal izango ditugu, Gizarte Pedagogiak eskaintzen digun corpus sistematiko horri esker.

### **Bitartekaritza jarduerak**

Hezkuntzaren subjektuaren eta kultura-edukien, beste subjektu batzuen edo gizarte-hezkuntza balioa duen leku baten arteko topaketa erraztea helburu duten laguntze eta euskarritze ekintzak eta prozesuak dira (García Molina, 2003a).

Bitartekaritza jardueraz mintzo garelarik, ez gara bereziki gatazketako bitartekaritza-lanei buruz ari, ez eta kultura-edukien irakaskuntza edo transmisioari buruz ere. Gure iritziz, alde aurreko lana da bitartekaritza, eta hezkuntzaren subjektuak lekuak, pertsonak eta edukiak topatu ahal izatea dugu haren xedea. Honela ulerturik, subjektuaren emantzipazio progresiboa da



bitartekaritzaren helburua.

- **Kultura-edukiak:** Gidaturiko topaketa izango da inolaz ere, epeak, baliabideak, laguntzarako materialak eta abar ezagutzen baititu hezitzaileak, eta subjektuari lagundu ahal izango dio, beraz, topaketa horretarantz gidatuz.
- **Besteak:** beste topaketa batzuk sorraraziko ditu hezitzaileak besteekiko gizarte harremanak aniztu eta/edo sendo daitezen. Gizarterako erraztasunak edo gaitasuna garatu beharra.
- **Lekuak:** hezkuntzaren subjektua bizi den gizarte espazioa egituratzen duten lekuen ezagutza eta haietan barrena egin beharreko iragaitza.

## Prestakuntzarako jarduerak

Kulturaren eskuratzea ahalbidetzen dutenak dira. Zentzu zabalean hartzen du hezkuntzaren subjektuak kultura, ez soil-soilik akademikoa. Kontzeptu-tresnak, trebetasun teknikoak eta gizarte harremanetarako formak eskuratzeko bidea eskaintzen duten irakaskuntza-ekintzak.

## Hezkuntzaren subjektua

Hezkuntza-harremanetan jartzen den pertsona edo talde oro hartzen dugu hezkuntzaren subjektutzat, hau da, gure jarduera profesionalaren hartzailea, hezkuntza-lan hori eskuratzeko prest agertzen denean.

## Gizarte-sareak

Gizartearen egitura berriaren poderioz, ezin dugu soil-soilik gizarte sistema bertikal bat aintzat hartu eta, beraz, hezkuntza-ekintza gauza daitekeen ibilbide, egoera, espazio, erritmo, denbora eta leku askotatik heltzen diogu. Gure gizartearen egungo egitura ulertzeko modu bat eskaintzen digu jokabide honek.

## Gizarterako gaitasuna

Gizarterako gaitasuna dugu gizarte espazioetan besteekin harremanetan jartzeko gaitasuna. Gizarterako gaitasunaz mintzo gara eta ez gizarteratze





edo sozializazioaz, azken honek Émile Durkheimen kontzepzioa, batez ere haurtzaroko gizarteratze metodikoa aintzat hartzen duena, hartzen baitu nagusiki aintzat.

### **Gizarte zirkulazioa**

Gizartearen garapenerako espazioetan barrean molde desberdineko ibilbideak egiteko aukera.

### **Kultura ondasunak**

Gizarte balio aitortua (eta beraz objektibatua eta objektibagarria) duten kultura-eduki eta balioak, zein bere garai eta lekutakoak direnak.

EGHEE – ASEDES, 2004ko otsaila.



## 2. Gizarte hezitzailearen Kode Deontologikoa

### AURRERKARIAK

Lanbidearen hasieratik, kolektibo profesionalaren eztabaidagaia eta kezkatuturria izan da etika profesionala.

Formalki, 1996. urtetik landu eta gogoetetan aintzat hartu da etika profesionalaren eta gizarte-hezkuntza jardueraren arazoa. Urte hartan, Murtzian egin zen Gizarte Hezitzailearen I. Batzarrean hain zuzen ere, sumatu zen bereziki lanbidearen gaineko gogoeta etikoa.

Gizarte hezitzaileekin batean lan egin zuen Deustuko Unibertsitateko irakasle talde batek prestatu eta aurkeztu zuen gai honen inguruko lehen zirriborrolana (*Esbozo de Código Deontológico del Educador/a Social. Hezkuntza Hezitzailearen Kode Deontologikoaren Zirriborrola. Bilbao, 1996*), Estatuko profesionalen Elkarte batzuek ondoren garatuko zituzten lanen abiapuntu egokia izango zena. Beraz, hasierako Zirriborrola hartan oinarritu da Kode hau.

1996tik aurrera, Mintegiak, Topaketak eta talde-lanak eratu zituzten Gizarte Hezitzaileen Elkarateek, gizarte hezitzailearen deontologiaren inguruan eztabaida-prozesuak zabaldu nahian. Ekin horren fruitua dugu Estatuko Gizarte Hezitzaileen III. Batzarrean *Ética y Calidad* (Etika eta Kalitatea) izenburuaz aurkeztu zen monografia.



Bartzelonan 2001. Urtean egin zen Estatuko Gizarte Hezitzaileen III. Batzarrean (AIEJI elkartearen XV. Mundu Batzarra) zehaztu ziren kode baten prestakuntzarako konpromisoak ezinbestez behar dituen oinarriak. Batzar hartan berean hitzartu zen Bartzelonako Adierazpenaren eskutik zabaldu zuen Estatuko EGHEE – ASEDES elkarteak 2003an, Hezkuntza Hezitzailearen Kode Deontologikoaren onarpenaz, bururatuko zen prozesua.

## **ATARIKOA**

2002ko azaroaren 30ean Toledon eginiko Batzar Nagusian, Estatuko Gizarte Hezitzaileen III. Batzarrean iragarritakoa zehaztu zuen EGHEE – ASEDES elkartearen Gobernu Batzordeak, lanbiderako Kode Deontologiko bat garatzeko konpromisoa hartu zuen aldetik. Hurrengo Batzar Nagusian aurkeztuko zuela hitz eman zuen.

Xede hari begira, «Kode Deontologikorako batzordea» sortu zen lehenik, eta partaidetza eta eztabaida-prozesua zabaldu zen profesional eta adituen taldeen artean hasierako proposamen baten inguruan. Lan haren fruitua izan zen gizarte hezitzailearen aurreneko Kode Deontologikoaren aurkezpena Toledon, EGHEE – ASEDES elkarteak 2004ko otsailean egin zuen Batzar Nagusian. Segida izan zuen ondoren batzordearen eta adituen lanak, eta aurkezten ari garen kode hau dugu haren emaitza.

Balio beza beraz kode honek denboran malgu jokatuko duen jarduera-gida baten antzera, jakinik betiere praktikara eramango duten deontologia-batzorde, kolegio eta elkarte profesionalen ekarriak hartu ahal izango dituela.

## **I. ATALA.**

### **Alderdi nagusiak**

Jarduera eta jokabide profesionalak orientatzen, lanbidearen jardunean gizarte hezitzaileari laguntzen, eta komunitateari eta oro har pertsoneri eskaintzen zaien lanaren kalitatea hobetzen duten oinarri eta arauen multzoa da Kode Deontologiko hau.



Legeei dagokienez, hona hemen Kode honek oinarritzat hartu dituen legeriak: Espainiako Konstituzioa, Pertsonen Eskubideen Adierazpen Unibertsala (1948), Pertsonen Eskubideen zaintzarako Europako Konbentzioa (1950), Europako Gizarte Karta (1965), Haurren Eskubideen Konbentzioa (New York, 1989), Europar Batasunaren Funtsezko Eskubideen Kartan jasoak (2000) eta Gizarte Hezkuntza pertsona ororen oinarritzko eskubidetzat legez xedatzen dutenak.

Eskubide honen zehaztapena dugu izaera pedagogikoa duen, gizarte-hezkuntza testuinguruak sortzen eta bitartekaritza eta prestakuntza alorretako jarduerak bideratzen dituen eta, gizarte hezitzailearen gaitasun profesionalaren esparruan gauzatzen den lanbide baten ezagutza, eta honako aukera hauek eskaintzen ditu:

- Hezkuntzaren subjektua gizarte-sareetara jotzeko aukera, hau da, haren gizarteratzea, gizarterako gaitasuna, autonomia eta gizarte zirkulaziorako aukeren garapena.
- Kultura eta gizartearen sustapena, kultura-ondasunak eskuratzeko aukera berrietara zabaltzeko aukerak eskaintzen diren aldetik, pertsonen hezkuntza, lan, aisia eta gizarte partaidetzarako ikuspegiak zabaltzeko.

Halatan, gizarte-hezkuntza jarduerak pertsona, talde eta komunitateetan hezkuntza mailako aldaketa, garapen eta sustapen-ondorioak eragiteko inplementatzen dituen ezagutza eta gaitasunen bilduma dago Gizarte Hezkuntzaren oinarrian.

Gizarteari, komunitateari eta pertsoneri oro har gizarte-hezkuntza zerbitzu eta baliabide batzuk eskaintzeko xedean azaldu, eratu eta sendotu da Gizarte Hezkuntza.

Lanbideak bat dituen eta praktikaren gidari eta orientatzaile diren oinarri eta arau etikoen defentsa aintzat hartu den seinale dugu Kode Deontologiko baten eraikuntza. Gizarte hezitzaileek gehienetan zailtasun eta mendekotasun egoeran bizi den populazioaren aurrean hartu duten erantzukizunaren isla ere bada, mendekotasun-egoera hori jakintza eta praktika profesional baten bitartez aldatzeko aukera duten aldetik. Hezkuntza-harremanen asimetria argiro erakusten duen ahalmen baten jabe bilakatzen du gaitasun profesional horrek gizarte hezitzailea.



Testuinguru horretan, konfiantzan oinarrituriko harremanen eta bi aldeei erantzukizuna eskatzen dien hitzarmenaren eraikuntza du ezinbesteko gizarte eta hezkuntza jarduerak, eta beharrezkoa da, beraz, gizarte hezitzaileak konfiantza hori bere boterea orientatu eta mugatuko duen Kode Deontologiko baten bidez bermatzea.

Era berean, gizarte hezitzaileak edo hezkuntza-taldeak gizarte-hezkuntzan bideratzen dituen jardueren erantzukizun profesionalaren isla dugu, alde batetik, Kode Deontologikoaren eraikuntza, eta zaindu egiten da, beste aldetik, lanbide gisa gizarte premia eta eskari batzuen aurrean duen autonomia, berezko egitura teoriko batzuen eta gizartean duen balioaren ezagutzaren bitartez. Beraz, lanbideak eta gizarte hezitzaileek lanbideak eta gizarte hezitzaileek gizarte politikaren, agintarien, galdeen, presioaren eta erakundeen ekinen arabera beharkizunen aurrean duten autonomia sendotzen du kodeak, oztopo gerta baitaitezke horiek guztiak hezkuntzaren subjektu diren pertsonen helburuen aldeko jardunean. Autonomia horren zaindari dira subjektu kolektibo eta bitartekari diharduten kolegio edota elkarte profesionalak, oinarri deontologiko orokorretan oinarrituz.

Hona hemen profesionalek, ari diren esparruan, eraikitako gizarte praktika orenen ezaugarrien oinarritzko alderdiak: ezagutza bereziak; ezagutza horietarako prestakuntza eta ikasketak, gaitasun eta trebetasun bilakatu ahal izan daitezen; kode etiko bat, trebetasun horien arabera jardunean erantzukizunean oinarrituriko ekina justifikatuko duen autoerregulazio-tresna gisa; barne joko-arauen sorrera, profesionalak elkarren artean eta beste profesionalekiko harremanetan egituratu ahal izateko eta, azkenik, lan-merkatuan duten presentzia justifikatuko duen jarduera politikoa, pertsonen gizarte eta hezkuntza premia eta eskariei erantzunez.

Gizarte Hezkuntzaren oinarritzko erreferentzia zientifikoak dira Gizarte Pedagogia, Psikologia, Soziologia, Antropologia eta Filosofia. Osagai teorikoak, metodologikoak eta/edo teknikoak eskaintze dituzte erreferentzia horiek gizarte eta hezkuntza lanari begira.

Jarduna orientatzen duten diziplinen ekarriak zabalduz, lanbide honek berezko dituen ezagutza batzuen corpusa sortu eta osatu da, esperientziaren kontzeptualizazioaren ondorioz.



Hiru antolakuntza-kategoria edo irizpideren araberakoa da gizarte hezitzailearen egunoroko hezkuntza-praktika. Haietan, egoerak aztertzen eta gizarte eta hezkuntza proiektuak diseinatzen, planifikatzen, bururatzen eta ebaluatzen ditu gizarte hezitzaileak:

1. Testuinguruko jarduerak, hau da, hezkuntza-espazioak sortu, hobetu eta baliabidez hornitzeko egitekoak eta ekintzak:
  - Gizarte eta hezkuntza programen azterketan, diseinuan, plangintzan eta ebaluazioan parte hartzea.
  - Herritarren partaidetzarako gizarte eta kultura politiken orientabidean parte hartzea.
  - Pertsonentzako zerbitzuen arteko sareen sorrerarako aukera emango duten erakunde, elkarte eta gainerako bazkun publiko nahiz pribatuekin jarduerak garatzea, gizarte eta hezkuntza jarduerari begira.
2. Bitartekaritza izaerako jarduerak, bitartekaritza gizarte hezitzaileek pertsonaren eta kultura-edukiaren artean topaketa aberasgarri bat bideratzeko beste pertsona, talde edo leku batzuk kontuan harturik egiten duten lantzat hartuta.
3. Prestakuntza eta transmisio mailako jarduerak. Pertsonak, taldeak eta komunitateak kultura-elementuen jabe bilakatzeko aukera ematen dutenak. Kontzeptu-tresnen, trebetasun teknikoaren edo gizartean elkar-eragiteko formen irakaskuntza-ekintzak.

## II. ATALA.

### Oinarri Deontologiko Orokorrak

Lanbidearen jardueraren hobekuntza kualitatiboa bultzatu nahi dute ondoko funtsezko oinarri hauek. Gizarte hezitzailearen jarduera orientatuko duten oinarriak dira.



## **1. Giza Eskubideen errespetua.**

Gizarte hezitzaileak oinarrizko eskubideen esparruaren barruan eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean zehazturiko eskubideen arabera jardungo du beti.

## **2. Gizarte eta hezkuntza jardueraren subjektuen errespetua.**

Gizarte hezitzaileak lanean ari den pertsonen alde jardungo du eta haien autonomia eta askatasuna errespetatuko ditu. Oinarri honen funtsean daude duintasunaren errespetua eta profesionaltasunaren oinarria, Kode honetan deskribatua.

## **3. Gizarte justizia.**

Zuzenbide Gizarte Estatu Demokratikoaren esparruan eta ez ongiletza edo karitate-arrazoiengatik, gure komunitateko edozein pertsonak du gizarte zerbitzuetarako eskubidea, eta eskubide horretan oinarrituko da betiere gizarte hezitzailearen jarduna.

Gainera, gizarte eta hezkuntza ekintzaren prozesuan betiere jardungo du gizarte hezitzaileak pertsona, talde eta komunitateen garapen eta ongizate oso integralaren alde eta, egoera kritikoetan ez ezik, egunoroko bizitzaren globalitatean ere hartuko du parte, azentua gizarteratzea zailtzen duten eta pertsonen marjinazioa eta bazterketa ekar ditzaketen gizarte baldintzen gainean ipiniz.

## **4. Profesionaltasuna.**

Bideratzen dituen jardueretarako gaitasunean, gauzatasunean eta kualifikazioan, auto-kontrolerako duen gaitasunean eta bere praxi profesionalaren gainean gogoeta egiteko gaitasunean oinarritzen da gizarte hezitzailearen agente profesionala. Unibertsitate-titulu bereziak edo Gizarte Hezkuntzarako kolegio profesional baten araberrako gaitzeak ematen diote abala jarduera profesional horri.

Gizarte hezitzailea bere praktika profesionaleko metodo, estrategia eta tresnen erabilera zorrotzerako prestaturik dago bere lanbidean, eta gai izango da halaber bere presentziak gizarte eta hezkuntza jarduna muga



dezakeen une kritikoak zehaztu eta identifikatzeko. Beharreko gaitasunez hornitu da eguneko praktika gauzatzeko, hala teorian nola praktikan. Lanari ekiterakoan taldean edo sarean bideraturiko hezkuntza-proiektu batean oinarrituriko hezkuntza-asmo zintzo bat du beti eta etengabe ikasteko prest dago etenik ez duen ikaskuntza-prozesu baten bidez, jakinik haren bidez garatuko dituela jarduera profesionala erraztuko dioten baliabideak.

## **5. Gizarte eta hezkuntza jarduera.**

Oinarrizko egitekotzat pertsonari bere bizitzako protagonista izaten lagunduko dion hezkuntza-lotura baten sorrera duen hezkuntzaren profesionala da gizarte hezitzailea.

Gainera, bere egiteko profesionala pertsonari, taldeari eta komunitateari bizi maila hobetzen laguntzea delako ustea eta erantzukizun osoa izango da gizarte hezitzailearen oinarria gizarte eta hezkuntza jarduera guztietan. Beraz, gizarte eta hezkuntza harreman horretan ez dagokio protagonista papera, lanean harremanetan dagoen pertsona, talde edo komunitateen nortasuna harturik.

Halatan, gizarte eta hezkuntza jardueretan zuzenean hurbiltzen saiatuko da beti lan-esparruko pertsonengana, haiengan norberaren hazkunde positibo baterako eta bizi diren komunitatean integrazio kritiko baterako aukera emango duten hezkuntza-prozesuak sustatuz eta bultzatuz.

## **6. Autonomia profesionala.**

Gogoan edukiko du gizarte hezitzaileak gizartean lanbidearen bitartez bideratzen duen funtzioa, haren funtsezko oinarri deontologiko orokorren arabera gizartean dauden premia batzuei hezkuntza mailako erantzuna ematen dielarik. Lanbidearen ordain gisa, haren araberrako jardueren ondorioz sortutako erantzukizunak beretuko ditu.

## **7. Koherentzia instituzionala.**

Lanean ariko den instituzioaren eskaria, hezkuntza-proiektua eta barne erregimenerako araudia ezagutu eta errespetatuko ditu gizarte hezitzaileak.





## **8. Informazio arduratsua eta isilpekotasuna.**

Laguntzen ari den pertsonen zuzeneko edo zeharkako informazioei dagokien sekretu profesionala gordeko du gizarte hezitzaileak. Lanbideak hala eskatuta profesionalen edo erakundeen artean informazioa eman edo jaso behar denean, pertsona, talde komunitatearen alde jokatu du gizarte hezitzaileak informazio-translazio horietan guztietan, eta oinarri etikoetan eta/edo legezko arauetan oinarrituko da beti jardun horretan, interesatuak eginiko guztien jakinaren gainean edukiko dituela.

## **9. Elkartasun profesionala.**

Jarrera aktibo, eraikitzaile eta solidarioari eutsiko dio beti gizarte hezitzaileak gizarte-hezkuntza jardueran parte hartzen duten gainerako profesionalekiko harremanetan.

## **10. Partaidetza komunitarioa.**

Gizarte hezitzaileak komunitatearen partaidetza bultzatuko du hezkuntza-egitekoetan, pertsonen bizi maila aldatzeko eta hobetzeko baliabideak eta gaitasunak sorraraziko dituen berekin harremanetan dagoen komunitatea bera izan dadin bultzatuz.

## **11. Funtzioen eta koordinazioen arteko osagarritasuna.**

Modu koordinatuan lan egingo du gizarte ekintzaileak, taldeetan edo/eta sareetan aritzean. Taldean duen funtzioa ezagutuko du, bai eta sarean okupatzen duen lekua edo posizioa ere, gogoan edukirik betiere zein neurritan eragin dezakeen bere jokabideak gainerako taldekideen, taldearen beraren eta profesionalen edo zerbitzuen lanean. Diziplina-arteko jokabidea hartuko du aintzat, kontuan harturik taldeko edo sareko beste kide batzuen ezagutzak eta gaitasunak. Etengabeko koordinazio sistematikorako jarrerak zehaztuko du Gizarte Hezkuntzaren profesional baten jarduera oro, pertsona edo kolektiboekiko gizarte-hezkuntza jardueren emaitza koherenteak bezain eraikitzaileak izan daitezen.



### III. ATALA.

#### Arau Deontologiko Nagusiak

#### LEHEN SEKZIOA

#### Gizarte hezitzailea gizarte-hezkuntzaren subjektuekiko harremanetan.

**1. Artikulua.** Pertsonarekiko harremanetan, berdintasunean oinarrituriko tratua bideratuko du, sexu, adin, erlijio, ideologia, etnia, hizkuntza edo beste edozein berezitasunengatik diskriminaziorik eragingo ez duela.

**2. Artikulua.** Gizarte-hezkuntza jardueretan, pertsonen duintasunaren aurkako metodoak eta teknikak, eta gutxieste nahiz diskriminaziorako aukera erraz sorraraz dezaketen nozio eta etiketen erabilera baztertuko ditu.

**3. Artikulua.** Gizarte-hezkuntza jardueretan, pertsonaren edo haren legezko ordezkariaren erabakia kontuan hartuko du. Horrekin batera hartuko da aintzat gizarte-hezkuntza jardueraren bukaera, pertsona adin nagusien eta emantzipatuen borondatek abiatuta.

**4. Artikulua.** Gizarte-hezkuntza jardueren prozesuan, harreman profesioaletatik gaineko lotura oro saihestuko du pertsonakiko jardunean, baldin eta mendekotasun afektiboa edo intimoa badakarte.

**5. Artikulua.** Familia nahiz taldearen inguru hurbilenaren egoera ezagutuko du, hala gizarte-hezkuntza jarduera haiekin guztiekin taldean bideratzen bada, nola bakarka edo talde horretako kide batzuekin bideratzen bada.

**6. Artikulua.** Inguru hurbileneko kide guztien eta bakoitzaren baliabide pertsonalak eta sozialak bultzatuko ditu, ahal neurrian, azaldu diren egoerei heltzeko moduan egon daitezen eta una uneko konponbidearen bila saia daitezen. Zentzu honetan, egitekoaren osagarri eta lagungarri gerta daitezkeen sareak eta zerbitzuak ezagutuko ditu, bai eta abiarazteko eta bideratzen ari den lanarekin uztartzeko modua ere.

**7. Artikulua.** Goitik beherako profesionaltasun zorrotza erakutsiko du beti informazioa erabiltzerakoan:



- A) Eskubidea izango du gizarte-hezkuntza jardueren bitartez harremanetan jarritako pertsoneri buruzko informazio guztia jasotzeko.
- B) Informazio horren isilpekotasuna errespetatu eta babestuko du.
- C) Pertsoneri eta haien inguruari buruz zein informazio garrantzitsu lortu behar duen jakingo du une oro.
- D) Egiazko informazio kontrastatua baizik ez du transmitituko, informazioa balorazio, iritzi eta pronostikoetatik bereiziz kasu guztietan.
- E) Informazio hori transmititu behar duelarik, jarduerako subjektua, haren ordezkaria edo tutorea, jakinaren gainean dagoela eta, ahal neurrian, haren baimenaz, egingo du transmisio hori.
- F) Inolaz ere ez da, bere edo herenen onurarako, informazio pribilegiatuaz edo bere lanbideak egoera eta posizio batzuen inguruan eskaintzen dion ezagueraz baliatuko.

## **BIGARREN SEKZIOA:**

### **Gizarte hezitzailea bere lanbidearekiko harremanetan.**

**8. Artikulua.** Gizarte hezitzaileak proiektuen bidez egiten du lan eta, jarduera integral bat bermatzearen, maila guztietan planifikatuko du gizarte-hezkuntza jarduna, eta ez du haren osagai bakarrik ere halabeharraren eskuetan utziko. Gainera, ebaluazio kritikorako jarrerari eutsiko dio betiere.

**9. Artikulua.** Gizarte-hezkuntza jardueren garapenari begira, ahalik eta informazio gehiena jasoko du eta arduraz eta metodologiaren zorrotasunaz (zehaztasuna adierazleetan eta datuak jasotzeko mekanismoetan) aztertuko du, objektiboki, egoera bakoitza. Informazioa jaso ondoren, gizarte-hezkuntza jardueraren planteamenduan eta garapenean parte hartuko duten elementu eta osagai subjektiboak ere hartuko ditu kontuan.

**10. Artikulua.** Gizarte-hezkuntza jardueretan, zuzen ordezkatu du bere lanbidea eta une oro zainduko du bere jokaera, haren bidez kalterik eragin



ez diezaion. Bere lanbidearen prestigioa eta errespetua zainduko ditu, eta egoki erabiliko ditu haren araberako terminoak, tresnak eta teknikak.

**11. Artikulua.** Bere tituluaz ez du titulurik ez duten edo beharreko gaitzearen jabe ez diren pertsonen praktika profesionala ebalatuko, ez eta estaliko. Era berean, intrusismo kasuak salatuko ditu, haren ezaguerara heldu orduko.

**12. Artikulua.** Lankide bat, hezitzaile nahiz bestelako profesional bat, bere lanbidearen esparruan zuzen ari ez dela susmatzeko arrazoi aski dagoela ikusten badu, egoera horren berri jakinaraziko dio kolegio profesionalari.

**13. Artikulua.** Bere lanbidearen, Gizarte Hezkuntza izena duen lanbidearen Kode Deontologikoa onartuko du gizarte hezitzaileak, babesa emango baitio lanari ekiterakoan. Beraz, ez ditu hartan zehazten diren eskubideak eta betebeharrak hautsiko dituzten oztopoak eta debekuak onartuko.

## HIRUGARREN SEKZIOA.

### Gizarte hezitzailea bere taldearekiko harremanetan.

**14. Artikulua.** Instituzio edo erakunde bateko taldean lan egiten duenari, jakitun izango da une oro talde horretako partaidea dela eta harekiko eta haren gizarte-hezkuntza proiektuarekiko koherentzia erakutsiko du.

**15. Artikulua.** Begirunez hartuko du lanean ari den taldea eta hura osatzen duten kide guztiak eta haietako bakoitza.

**16. Artikulua.** Profesionaltasuna lehenetsiko du taldekideekiko harreman afektiboan aurretik.

**17. Artikulua.** Talde bateko kide gisa, proiektuen hezkuntza-alderdiak, taldeko profesionalen gizarte-hezkuntza jarduerak gidatuko dituztenak, landuko ditu, eta haren garapena bultzatuko du bere gogoeten bitartez.

**18. Artikulua.** Taldeko beste kideekin batean, gizarte-hezkuntza jardueren



planifikazioa, diseinua, abiaraztea eta ebaluazioa bultzatuko ditu, bai eta informazioaren transmisiorako mekanismoak eta irizpideak gauzatu ere.

**19. Artikulua.** Saihestu egingo ditu taldeko beste kideek gizarte-hezkuntza jardueraren pertsona subjektuekin bideratuko dituzten funtzio, egiteko eta harreman guztietan gerta litezkeen interferentziak.

**20. Artikulua.** Taldearen erabakiak errespetatu eta onartuko ditu, kontrastatu, argudiatu eta hitzartu eta gero, bai eta haiekin bat ez datorrenean ere, eta bere egingo ditu gizarte-hezkuntza jarduera garatzerakoan, taldeak hartu duen erabakia kode honen eduki guztien arabera bada eta profesionalen interesen gainean pertsonen interesa lehenetsi bada.

**21. Artikulua.** Taldeko kide batek bideraturiko irregulartasunen berri jakinaraziko dio taldeari edo erakundeari, lanbidearen praktikan pertsonen duintasuna eta errespetua kalteturik gertatu direnean.

## LAUGARREN SEKZIOA.

### Gizarte ekintzailea lanean ari den erakundearekiko harremanetan.

**22. Artikulua.** Lan profesionala bideratzen ari den erakundearen oinarri ideologikoak ezagutu eta errespetatuko ditu, haren hezkuntza-proiektua partekatuko du eta kontsekuente izan behar du haren arauekin.

**23. Artikulua.** Erakundeak bideraturiko irregulartasunen berri jakinaraziko dio kolegio profesionalari, lanbidearen praktikan pertsonen duintasuna eta errespetua kalteturik gertatu direnean.



## BOSGARREN SEKZIOA

### Gizarte hezitzailea oro har harturiko gizartearekiko harremanetan

**24. Artikulua.** Praktika profesionalean, kolaborazio-lanak bideratuko ditu komunitatean dauden zerbitzuekin, instituzioak baliabideen optimizazioa eta gizarte-hezkuntza zerbitzuen eskaintzaren hobekuntza bultzatzeko jardunean inplikatur.

**25. Artikulua.** Lan eraginkorra bideratuko du komunitatean, inguruneko gizarte eta kultura bizitza bultzatuz, eta pertsonen hezkuntza globala eragina eduki dezaketen gizarte eta kultura alderdi guztien ezagutza eta balorazioa sustatuz.

**26. Artikulua.** Aholkularitzarako ekinaldien, publizitate nahiz politika kanpainen eta antzekoen kasuan, edukien egitasuna eta pertsona eta taldeen errespetua zainduko ditu bereziki, Gizarte Hezkuntzarekiko alderdietan.

**27. Artikulua.** Kontzientzia kritikoa bultzatuko du gizarte arazoan eta haien kausen aurrean.

**28. Artikulua.** Adi egongo da eta kritiko azalduko da hedabideen informazio manipulatu edo ez zehatzen aurrean, pertsona, talde edo komunitateen estigmatizazioa areagotu



## XEDAPEN GEHIGARRIAK

**Lehena.** Lanbidean zuzenean ukituko duten gaietan, ezagutu eta beteko ditu bere lurraldeko Kolegio Ofizialaren estatutu-arauak, erabakiak edo ebazpenak, bai eta Gizarte Hezitzaileen Kolegio Ofizialen Batzorde Nagusiarenak ere.

**Bigarrena.** Estatuko lurralde guztian aplikatuko da Gizarte Hezitzailearen Kode Deontologiko hau, eta gizarte hezitzaile guztiek ezagutu eta beteko dute.

EGHEE – ASEDES, 2007ko apirila

## 3. Gizarte Hezitzailearen Egiteko eta Arduren katalogoa

### 1. SARRERA

Hona hemen Espainiako lurraldeko Gizarte Hezitzaileek beren lanbidearen oinarritzko euskarrizat jo dituzten hiru dokumentuen (Gizarte Hezkuntza lanbidearen definizioa, Kode Deontologikoa eta Egiteko eta Arduren Katalogoa) prestakuntza-lanei azkena eman diena, Egiteko eta Arduren Katalogoa hain zuzen ere. Halatan, hezkuntza hezitzaileen lanbidearen gorputz teorikoaren, kulturaren eta nortasunaren funtsezko ardatz nagusizat hartu behar dira hiru dokumentu hauek. Beste edozein lanbidetan bezala, beharrezko ardatz garrantzitsua da hau, barne koherentziari eutsi nahi bazaio eta lanbidea ganoraz garatu nahi bada.

Gizarte eta hezkuntza lanbidea den aldetik, aurreko dokumentuen araberako egiteko eta arduren katalogoa behar zuen inolaz ere Gizarte Hezkuntzak. Haren izaera zaticakoa eta une guztietan aldagarria dela onartu beharra dagoen arren, balio beza lanbidearekin loturiko administrazio eta erakundeen, bai eta herritar guztien, aurreko aurkezpen eta legitimazio gutun gisa.

Karga etiko garrantzitsua dakarkigu berez Gizarte Hezitzaileen lanak, eta handia da, era berean, lanbidearekiko eta jardungo duen gizartearekiko ezinbestez onartu behar duen konpromisoa. Halatan, Gizarte Hezkuntzaren lanbidearen definizioa eta Kode Deontologikoa mamitzen dituzten oinarrien ildotik koherentziaz aurrera eginez, bi multzo zehaztu daitezke argi eta garbi oinarri profesionalen eremuan, katalogo honetan deskribatuko diren Gizarte





Hezitzaileen egitekoak eta ardurak ulertzerakoan oinarrizko plataforma gisa erabili ahal izango ditugunak.

Gizarte hezitzaileek Gizarte Hezkuntzaren garapen-esparruarekin duten konpromisotik abiatuak ulertuko dugu lehen oinarri-multzoa. Haren arabera, kontzientzia profesional sendo indartsua erakutsi eta bideratuko dute Gizarte Hezitzaileek beren hezkuntza-praktika eta lanbidea garatuko duten gizarte, kultura eta legezko testuinguruetan. Horretarako, sakon ezagutu eta barneratuko du gizarte hezitzaileak bere lanbidearen definizioa, haren aurrean ageriko konpromisoa erakutsirik, eta etenik ez dute izango harengan gizarte-hezkuntza jardueraren kalitatea hobetzeko jarrerak eta kezak, gelditu gabe bilatuz eta ikertuz, eta Gizarte Hezkuntzarako kontzeptu eta prozedura berriak sorraraziz, bazterrean utzi gabe Lanbideak berezko dituen jarduera-esparruak, Kolegio Profesionalak eta Unibertsitatea.

Bigarren oinarri-multzoak bereziki behartzen du Gizarte Hezitzailea Gizarte Hezkuntzaren arloan bideratuko duen jarduna lanbidearen kultura, balio eta igurikapenen araberrako jarrera etiko batetik sustatzea. Etikak eta deontologia profesionalak zehatz-mehatz eskatzen dute hezkuntzaren subjektuenganako harremanetan begirunez eta konpromisoz jokatzeko, kontuan hartu gabe haien gizarte eta pertsona egoerak, ideologia, jarrera eta/edo portaera.

Egiteko, ardura eta lan kontzeptuen gaineko eztabaida baten inguruan eraiki da dokumentu hau, lanbidearen jardura eta praktikari datxekien oinarrizko arazoetara baikaramatzeko hiru kontzeptu horiek guztiek. Bigarrenik, gure lanbidearen ezaugarri berezien berri emango diguten sei Egiteko edo funtzio deskribatuko ditugu. Profesionalen gizarte eta hezkuntza jardueren araberrakoak dira egiteko horiek eta lotura dute, halaber, Gizarte Hezitzaileak instituzio eta zerbitzuetatik garatzen dituen beste horiekin. Komenigarri iruditu zaigu atal honetan deskribaturiko egiteko bakoitza garapenean bereziki bideratuko dituzten ardurekin lotzea, Gizarte Hezitzaileak ardura-esparru horietan bideratuko dituen ezagutza eta jakintzetatik abiatuta. Gizarte Hezitzailearen Ardura-bloketan multzokatu ditugun ardura-gaitasun batzuk hartu ditugu kontuan azkenik. Hezkuntza-lanaren garapen eta euskarriekin argi eta garbi identifikatzen diren ardura eta/edo gaitasunen berri ematen digute ardura-multzo hauek.

Gizarte eta hezkuntza arloetako mandatu berezia jaso duen profesionaltzat



hartu nahi izan du hasiera-hasieratik dokumentu honek Gizarte Hezitzailea. Mandatu horri egokiro erantzungo badio, formazioz eta/edo eskarmentuz ikasi eta/edo bereganaturiko jakintza-errepertorio zabal baten beharra du<sup>3</sup>, haietatik bere diskurtso profesionalaz bezala herritarren gizarte eta hezkuntza arloetako eskariak eta premiak asetzeko leku aiposean egokitzen duten orientazio etiko eta teknikoez jabetzeko. Hona hemen gure abiapuntua: bere arloko profesionala den aldetik, gai da Gizarte Hezitzailea gizarte, politika eta ekonomia konfigurazio eta logika berriek pertsoneri, taldeei eta gizarteari egiten dizkieten mandatu sozialen aurrean egokiro erantzuteko eta harreman eta hezkuntza-estrategia desberdinez baliatzen da horretarako. Haren berezitasuna da hezkuntza-jarduna, administrazio publikoek honako helburu hauei begira bultzatzen dituzten programa eta proiektuetan mamitzen dena: herritarren gizarte eta kultura baldintzak hobetzea, ongizate eta bizi maila hobeak erdiestea, gizarte bazterketa eta/edo marjinazio egoerek dakartzaten ondorioen aurreko konpentsazioa, haiek berritotzea ekidin nahi duen joera garbian, justizia soziala gidari. Zentzu honetan, gizarte eta hezkuntzaren subjektuen gizarteratzea ahalbidetzen du Gizarte Hezitzaileak, hau da, gizarte sareen askotariko munduan barneratzen laguntzen dio hezkuntzaren subjektuari, haren gizarte eta kultura hazkundera sustatuz eta bultzatuz.

## 2. KONTZEPTU NAGUSIEN DEFINIZIOA

Garrantzitsua da alde zehatzetik Egiteko eta Ardura kontzeptuak zer diren zehaztea edo definitzea, azalpenak eta dokumentua bera zentzuz hornituko duen esparruan mugituko bagara. Izan ere, pentsamendu-eskoletan, teorietan, diziplina-arloetan eta, areago, esparru geografikoetan, hizkuntza-eremuetan, itzulpen-joeretan askotan zeinek bere moduan ulertzen eta erabiltzen diren kontzeptuak erabiltzen ari gara. Gogoan eduki bedi, kontzeptu hauek definituta eta gure lanbidearen esparrutik esanahi batez hornituta, lagundu egingo diegula euren formazioan Gizarte Hezkuntzarako Diplomaturan ari diren ikasleei eta, era berean, etengabeko formazioan ari diren aldetik, egungo profesionali.

---

3 1991ko abuztuaren 30eko 1420/1991 ERREGE DEKRETUA. Haren bitartez zehaztu zen Gizarte Hezkuntzako Diplomatura unibertsitate-titulu ofizial gisa, eta xedatu ziren, orobat, ikasketa-planek behar dituzten zuzentarau orokorrak



Une honetatik aurrera, lan eta lanbide baten araberako erantzukizun-esparrua zehazten duten egiteko batzuen arlotzat hartu eta ulertu ditugu egiteko profesionalak. Azken finean, profesionalak halako garantiaz bidera ditzakeen lan eta egitekoek zehazten dute erantzukizun-esparrua. Profesional batek trebetasun maila aski batez egin dezakeena dugu lanbide bat besteetatik bereizten duten berezko ardura-gaitasun profesionali zentzua ematen dien gakoak.

Halatan, bateratsu gatoz guztiok ardura jakintza batetik, jakintza eta/edo jarrera batetik, datorren zerbait dela ondorioztatzerakoan, eta bereziki balio digu bat etortze horrek Gizarte Hezitzailea bere unibertsitate-prestakuntzaren eta lanean bilduriko tradizio/eskarmentuaren araberako egitekoetarako gauza den profesionaltzat hartzeko.

Herritarren eta Gizarte Hezitzaileen euren eskari eta premien arabera eguneratu behar dira ikasketa eta jarduera horiek. Beraz, gauza izatea, Gizarte Hezitzaileen kasuan, berentzat harturiko egitekoen araberako lanetan modu eraginkorren eta etikoan jarduteko gauza izatea da.

Hasieratik ulertu dugu EGHEE – ASEDES Elkartearen Gizarte Hezkuntzaren definizioak (2004) zehaztu duela Gizarte Hezitzailearen egiteko orokorrak edo nagusiak gogoan hartzeko eta zehazteko abiapuntua:

Herritarren eskubidea, izaera pedagogikoko lanbide batez gauzatzen dena. Gizarte hezitzailearen gaitasuneko esparrukoak dira lanbide horren araberako hezkuntza-testuinguruak eta bitartekaritza eta prestakuntza-jarduerak, eta honako balio hauek bultzatzen ditu:

- Hezkuntzaren subjektua gizarte sareetara bideratzea, hau da, haren gizarteratzearen eta gizarte zirkulazioaren garapena.
- Kulturaren eta gizartearen sustapena, kultura-ondasunak eskuratzeko aukera berrietara egiten den zabalitze lan gisa, gizartean hezkuntza, lan, aisia eta partaidetzarako aukera eta ikuspegiak zabaltzeko.

Gizarte hezitzaileak identifikatzen diren kontzeptu (eskubidea, lanbidea, herritarrak) eta logika batzuen iraunkortasuna ziurtatzen du definizio honek,



bai eta haien mandatuak, erantzukizunak eta helburuak ere, kontuan hartu gabe lanean ari diren esparrua edo erakundea.

Egitekoei dagokienez, beren baitan izaera bereziagia duten lan eta egitekoak hartzen duten eremutzat hartzen ditugu. Egiteko berezi horiek egunoroko praktikaren arlo, esparru eta ekipamenduetakoak dira eta, izaera orokorrago batez hornitu direlarik, argiago identifikatzen dituzte horrenbestez profesionalak, gizarte-hezkuntza jardueraren muina ere garbiago adieraziz.

Deskribaturiko egiteko profesionalak dagozkien jarduerak garatzeko aukera ematen duten jakintzak eta jarrerak hartzen dituzte beren baitan Ardurak Profesionalek.

Baina Gizarte Hezitzailearen erantzukizunaren eremu osoa hartu ahal izateko, beharrezkoa da gizartearen eta/edo erakunde baten, beste profesionalen eta norberaren aurrean onarturiko mandatuarekiko erantzukizuna agerian utziko duten beste ardura-gaitasun batzuk ere aipatzea. Zentzu honetan, komunikazioari eta pertsonen arteko harremani buruzko ardura eta gaitasunez mintzatuko ginateke, haien helburua gizartean elkarlan eta elkar-eraginerako prozesuak erraztea den aldetik. Gizarte Hezitzailearen gaitasunekin lotzen dira zuzenean bloketan multzokatzen diren ardura hauek, eta beren baitan hartzen dituzte orobat, egoki erabiliz eta menderatuz, praktika profesionalaren alderdietan (gogoeta, etika eta teknika) etengabeko hobekuntzarako kezka sustatzen eta mamitzen duten oinarrizko aplikazio teknikoak eta instrumentalak.

### **3. GIZARTE HEZITZAILEAREN FUNTZIOAK ETA GAITASUNAK**

Egiteko Profesionalak dira Gizarte Hezitzaileak erakunde batean edo jardueraren esparru jakin batean bere ardurapean dituen egitekoak, baldin eta bere unibertsitate-ikasketetan bereganaturiko mailaren edo bere formazioan edo esperientzian lorturiko jakituriaren arabera ekintza eta jarduerekin zuzenean loturik badaude.

Bideratzen, garatzen eta ardura betean burura eramaten dituen profesionalaren ezaugarri eta berezitasunen arabera biltzen eta hartzen dira aintzat ekintza eta jardura horiek.



Ardura hartzaileek eta mugatzaileek ezaugarritzen dituzte egiteko horiek.

Hartzaileak gure elkar-eragite espazioan hezkuntzaren subjektu gisa hartu nahi baitituzte pertsonak eta/edo kolektiboak, bete-betean eta haien jakinaren gainean, haien kultura eta/edo garapena bultzatuko duten aldaketa-prozesuak sustatzearren.

Mugatzaileak hezkuntza-jardueraren helburua gizarteratzearekin lotzen duten kolektibo eta/ edo pertsonekin akordioak, konpromisoak eta mugak zehaztu nahi dituztelako.

Ohar egin ahal izango den bezala, Gizarte Hezkuntzaz eman dugun definizioaren arabera, gizarte-hezkuntza praktikaren muina adierazten dute aurreneko hiru egitekoek, eta guztiz bereizten eta banatzen da horrenbestez gizarte hezitzailearen lana beste profesional batzuenetik. Praktika bideratzeko moduak azaltzen dituzten ardura-eremuekin lotzen dira egiteko horiek, eta hezkuntza-proiektuak diseinatu, planifikatu, burura eraman eta ebaluatzeko aukera ematen duten irizpideen arabera sistematizatzen eta planifikatzen dira.

Beste profesional batzuekin parteka daitezkeen ardura-gaitasunekin lotzen dira gainerako egitekoak. Haien ikuspegiak eta orientabideak aldatuko dira beharbada abiatzeko unean, baina ukaezinak dira nolana ere ardura-gaitasunen eta lanen artean dauden bateratasunak talde multiprofesional edo diziplina-anitz deituetan.

- **Kulturaren transmisioa, garapena eta sustapena**

Kulturarekin oro har loturiko ekintza eta jardueri dagokien ardura-eremua. Nabaria da ekintza eta jarduera haietan errekreaziorako, besteren eskuetan jartzeko, haien ikaskuntza bideratzeko eta/edo, eduki-multzo desberdinak sorraraz ditzaketen kultura-ondasunen itxuran, transmisio eta eskuratze prozesu bilakatzeko joera.

Kulturarekin oro har loturiko ekintza eta jardueri dagokien ardura-eremua. Oro har, gizarte ikaskuntza eta pertsonen formazio iraunkorrarekin lotzen dira eta joera nabaria ageri dute, halaber, beren errekreazio eta sustapenerako, talde, kolektibo eta komunitateen eskutik.

Egiteko honekin loturiko ardura-gaitasunak:



- Gizarte balioa duten kultura-ondasunak ezagutzen jakitea<sup>4</sup>.
- Hezkuntza eta prestakuntzarako metodologiak menderatzea.
- Aholkularitza eta orientabiderako metodologiak menderatzea.
- Kulturaren transmisio erak hezkuntzaren subjektuen berezitasunera moldatzeko gaitasuna<sup>5</sup>.
- Gizarte eta kultura dinamizaziorako metodologiak menderatzea.
- Kulturaren hedapen eta kudeaketa parte-hartzailerako gaitasuna
- Gizarte sareen eta hezkuntza eta gizarte testuinguru, prozesu eta baliabideen sorrera

• **Ardura-eremu honek zuzenean ditu aipagai hezkuntza espazio eta denboren agerpen eta sendotze prozesuak berariaz errazten dituzten ekintzak eta jarduerak**

Hau da, molde bateko edo besteko gizarte testuinguruetan pertsona edo gizarte mailako hobekuntzarako aukerak eskain ditzaketen pertsona edo talde-prozesuak errazten dituzten egoerak.

Egiteko honekin loturiko ardura-gaitasunak:

- Trebetasuna gizarterako gaitasunaren, gizarte zirkulazioaren eta gizarte eta kulturaren sustapenaren garapena bultzatzen eta sustatzen duten lekuak identifikatzeko.
- Ezagutza eta trebetasuna, pertsonen, kolektiboen eta instituzioen artean sareak sortzeko eta sustatzeko
- Pertsonen artean eta gizarte taldeen artean harremanak bultzatzeko gaitasuna.
- Hezkuntza-harreman berezietarako aukerak eskainiko dituzten esparruak sortzeko eta egonkortzeko gaitasuna.
- Hezkuntza prozesuak aberastu eta hobetzeko tresnak eta bitartekoak lantzen jakitea.
- Trebetasuna gizarte eta kultura prozesuak abiarazteko<sup>6</sup>.
- Gizarte, kultura eta hezkuntza bitartekaritza

4 UNESCOren txostenak gizarte balioko ondasunak aintzat hartzerakoan proposatu zuen ildotik: «altxor etikoa eta kultural-artistiko-zientifiko/teknologiko eta ekonomikoa du bere baitan hezkuntzak».

5 Hezkuntzaren subjektuak, hau da, gizarte-hezkuntza jardueran parte hartzen ari diren pertsonak, taldeak edo komunitateak.

6 Komunitate eta kolektiboen kultura-garapena.



• **Banakako nahiz taldekako hezkuntza-prozesuak aberasteko garatzen diren jarduerekin loturiko ardura-eremua da.**

Kultura-elementuekin, beste pertsona edo taldeekin eta beste leku batzuekin topo egiteko aukera eskaintzen duten laguntza, orientabide eta deribazioen ondorio dira hezkuntza-prozesu hauek. Haien asmoa da pertsonen arteko harremanak erraztea, gatazka-egoerak leuntzea eta pertsona, gizarte eta kultura mailako garapenerako ibilbide berriak sorraraztea.

Egiteko honekin loturiko ardura-gaitasunak:

- Bitartekaritzaren gaineko ezagutza teorikoak eta metodologikoak, haren adar guztietan.
- Harremanetan jarri beharreko kultura-eduki, leku, pertsona edo taldeak ezagutzeko trebetasuna.
- Prozesuetako urratsak edo tresnak praktika bitartean ezagutaraztea.
- Edukiak, pertsonak, kolektiboak eta instituzioak harremanetan jartzen jakitea.
- Gizarte eta hezkuntza testuinguruaren ezagutza, azterketa eta ikerketa

• **Instituzioen dinamiken eta gizarte testuinguruaren ikerketa eta ezagutzarekin loturiko ardura-eremua.**

Makro, meso eta mikro dimentsioetan eta zuzenbidearen subjektu batekin loturik hartzen dira kontuan dinamika eta testuinguru horiek.

Egiteko honekin loturiko ardura-gaitasunak:

- Testuinguru jakin bateko hezkuntza premiak atzemateko gaitasuna.
- Komunitatearen garapen planen eta tokiko garapenaren gaineko ezagutza.
- Trebetasuna premien aurrean eman behariko lirakeen erantzunak zehazteko unean, beste arlo batzuetako erantzun posible batzuetatik bereiziz (asistentzia, osasuna, terapeutika, eta abar).
- Gizarte Hezitzailearen jarduerak ahalbideratzen, orientatzen eta legezkatzen dituzten lege-esparruen ezagutza eta aplikazioa.
- Gizarte eta hezkuntza egoera aztertze eta ebaluatze gaitasuna (errealitatearen azterketa).
- Gizarte, hezkuntza eta kultura politiken ezagutza.
- Hezkuntza programa eta proiektuen diseinua, inplementazioa eta



ebaluazioa

- **Instituzioetan bezala, programa, proiektu eta jardueren bitartez bideraturiko lan, ekintza, eta jarduerekin lotura duen ardura-eremua.**

Egiteko honekin loturiko ardura-gaitasunak:

- Gizarte-hezkuntza jarduera arautzen duten oinarrizko dokumentuak formalizatzeko gaitasuna: zentroaren proiektua, barne erregimenerako araudia, lanaren plangintza, banakako hezkuntza-proiektua eta beste gizarte-hezkuntza txosten batzuk.
- Irakaskuntza-programen eta /edo ekintzen plangintza, programazio eta diseinurako teknikak menderatzea.
- Ebaluatzeko metodoetarako tekniken ezagutza.
- Hezkuntza instituzio eta baliabideen kudeaketa, zuzendaritza, koordinazioa eta antolakuntza.

- **Gizarte eta hezkuntza arloetako helbururen bat duten ekintza eta jarduerekin loturiko ardura-eremua.**

Egiteko honekin loturiko ardura-gaitasunak:

- Programa, ekipamendu eta giza baliabideen zuzendaritzarako eredu, teknika eta estrategiak menderatzea.
- Gizarte-hezkuntza jarduera arautzen duten oinarrizko dokumentuak formalizatzeko gaitasuna: zentroaren proiektua, barne erregimenerako araudia, lanaren plangintza, banakako hezkuntza-proiektua eta beste gizarte-hezkuntza txosten batzuk.
- Irakaskuntza-programen eta /edo ekintzen plangintza, programazio eta diseinurako teknikak menderatzea.
- Hezkuntza planak, programak eta/edo proiektuak eta irakaskuntza jarduerak abiarazteko gaitasuna.
- Trebetasuna proiektu, programa, zentro eta hezkuntza baliabideen kudeaketan.
- Gizarte eta/edo hezkuntza izaerako erakunde eta elkarteak antolatzeke eta haien hezkuntza zerbitzuen kudeatzeko gaitasuna.
- Eskaintako zerbitzua aintzat harturiko helburuen arabera ikuskatzeko gaitasuna.
- Proiektuen zabalkunderako teknikak eta estrategiak menderatzea.





## 4. GIZARTE HEZITZAILEAREN ARDURA-BLOKEAK

Atal honetan, ardura-bloke batzuk aipatuko ditugu Gizarte Hezitzaileak bere lana garatzeko dituen ardura eta gaitasunen deskripzioan oinarrituta. Funtsezko ardura edo gaitasunei dagozkien bloke hauek, lehen mailakoak dira guztiak edozein lanbidetan, eta haien izaera dela-eta, ezinbestekoa da definizioan haien dimentsio teorikoa, etikoa eta teknikoa aintzat hartzea.

### 1. Komunikaziorako gaitasunei dagozkien ardurak.

Modu egokian mintzatzeko eta testuinguru sozio-kultural eta profesional desberdinen arabeko kodeak ulertzeko gaitasuna.

Informazio eta komunikaziorako teknologien ezagutza eta erabilera, lanbidearen jardunean beharrezkoak diren ezagutza eta informazioa kodetzeko eta zabaltzeko aukerak gero eta handiagoak izateko helburuaz, mintzamoldeak eta komunikazio erak gero eta aberatsagoak izan daitezzen.

### 2. Harremanen arloko ardurei dagozkien gaitasunak

Beste pertsona eta taldeekin harremanetan jartzeko gaitasuna, adi entzunez eta argiro mintzatzuz. Lanbidearen jardura gauzatzen ari den gizarte testuinguruan komunikaziorako dauden bitartekoak eta bideak erabiliko ditu horretarako, eta beharreko antze eta trebetasunaz baliatuko da, halaber, taldeak elkarren artean harremanetan jartzeko eta kulturaren aldeko ekintzen eta herritarren partaidetzaren aldeko ekintetan mugiarazteko.

### 3. Analisi eta sintesirako gaitasunarekin loturiko ardurak

Gizarte eta hezkuntza egoerak ulertzeko gaitasuna, osatzen dituzten ekintzak bereiziz, jokoan parte duten elementuen gainean ikuspegi orokora bat itxuratu ahal izateko. Praktiken analisi eta sintesirako gaitasuna eta, beraz, profesionalaren trebetasunak eta xede eta helburuen arabera eduki ditzaketen ondorioak aztertzeke ezagutza eta antzea, atzendu gabe.

### 4. Gogoeta eta kritikarako gaitasunekin loturiko ardurak

Gizarte, politika, ekonomia eta hezkuntza testuinguruak, eta haien esanahia, haien gaineko interpretazioak eta haien arabeko gertaerak aztertzeke eta ulertzeko gaitasuna.



Testuinguru horietan parte hartzen ari diren logika desberdinen kausak eta ondorioak kontrastatzeko gaitasuna, lanbidearen araberako irizpide eta hatsarre egokietan oinarrituriko erabakiak hartzeko.

Lanbidea bideratzen ari den gizarte eta instituzio errealitatearen irakurketa pertsonal eta kolektiboetatik eraikitako gizarte-hezkuntza praktikak bultzatzeko iaiotasuna.

Gizarte Hezitzaileen sentiberatasuna eta trebetasuna ezagutza praktikoaren, jakintza estrategikoaren eta hartu beharreko erabakien gaineko gogoeta egiterakoan, gizarte lanbideek justizia eta berdintasunaren alde dituzten helburuekin egokiago bateratuko diren errealitate eta eduki berriak bultzatuz.

## **5. Ezagutza eta informazioaren hautaketa eta kudeaketarako gaitasunekin loturiko ardurak**

Gure gizarteek etengabe sorrarazten duten informazio-fluxuan, Gizarte Hezitzaileak lanean ari diren instituzio edo erakunderako garrantzitsuen eta erabakigarrien gerta litezkeen informazioak hautatzeko gaitasuna.

Gizarte Hezitzaileek hezkuntzaren subjektuengandik edo beste profesionalengandik jasotzen dituzten informazioak eta datuak bereizteko, lehenesteko eta zentzuz hornitzeko trebetasuna, bideratu beharreko hezkuntza lana ahalik eta neurri handienez objektibatuzko edo/eta beste profesionalengana bideratzeko.



EGITEKOEN ETA ARDUREN ARTEKO LOTURA  
AGERI DU KOADROAK ESKEMATIKOKI

EGITEKOA	ARDURA
<p>Kulturaren transmisioa, prestakuntza, garapena eta sustapena.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gizarte balioko kultura ondasunak aintzat hartzen jakitea<sup>7</sup>.</li> <li>• Hezkuntza eta heziketarako metodologiak menderatzea.</li> <li>• Aholkularitza eta orientabiderako metodologiak menderatzea.</li> <li>• Kulturaren transmisiorako formak hezkuntzaren subjektuen berezitasunera moldatzeko gaitasuna<sup>8</sup>.</li> <li>• Gizarte eta kulturaren dinamizaziorako metodologiak menderatzea.</li> <li>• Kulturaren zabalkunde eta kudeaketa parte-hartzaileko gaitasuna.</li> </ul>
<p>Gizarte sareen eta hezkuntza eta gizarte testuinguru, prozesu eta baliabideen sorrera</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Trebetasuna gizarterako gaitasunaren, gizarte zirkulazioaren eta gizarte eta kulturaren sustapenaren garapena bultzatzen eta sustatzen duten lekuak identifikatzeko.</li> <li>• Ezagutza eta trebetasuna, pertsonen, kolektiboen eta instituzioen artean sareak sortzeko eta sustatzeko</li> <li>• Pertsonen artean eta gizarte taldeen artean harremanak bultzatzeko gaitasuna.</li> <li>• Hezkuntza-harreman berezietarako aukerak eskainiko dituzten esparruak sortzeko eta egonkortzeko gaitasuna.</li> <li>• Hezkuntza prozesuak aberastu eta hobetzeko tresnak eta bitartekoak lantzen jakitea.</li> <li>• Trebetasuna gizarte eta kultura prozesuak abiarazteko<sup>9</sup>.</li> </ul>
<p>Gizarte, kultura eta hezkuntza bitartekaritza</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bitartekaritzaren gaineko ezagutza teorikoak eta metodologikoak, haren adar guztietan.</li> <li>• Harremanetan jarri beharreko kultura-eduki, leku, pertsona edo taldeak ezagutzeko trebetasuna.</li> <li>• Prozesuetako urratsak edo tresnak praktika bitartean ezagutaraztea.</li> <li>• Edukiak, pertsonak, kolektiboak eta instituzioak harremanetan jartzen jakitea.</li> </ul>

(jarraitzen du)

7 UNESCOren txostenak gizarte balioko ondasunak aintzat hartzerakoan proposatu zuen ildotik: «altxor etikoa eta kultural-artistiko-zientifiko/teknologiko eta ekonomikoa du bere baitan hezkuntzak».

8 Hezkuntzaren subjektuak, hau da, gizarte-hezkuntza jardueran parte hartzen ari diren pertsonak, taldeak edo komunitateak.

9 Komunitate eta kolektiboen kultura-garapena.



(jarraiera)

EGITEKOA	ARDURA
<p>Gizarte eta hezkuntza testuinguruaren ezagutza, azterketa eta ikerketa</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Testuinguru jakin bateko hezkuntza premiak atzemateko gaitasuna.</li> <li>• Komunitatearen garapen planen eta tokiko garapenaren gaineko ezagutza.</li> <li>• Trebetasuna premien aurrean eman beharko liratekeen erantzunak zehazteko unean, beste arlo batzuetako erantzun posible batzuetatik bereiziz (asistentzia, osasuna, terapeutika, eta abar).</li> <li>• Gizarte Hezitzailearen jarduerak ahalbideratzen, orientatzen eta legezkatzen dituzten lege-esparruen ezagutza eta aplikazioa.</li> <li>• Gizarte eta hezkuntza egoera aztertzeko eta ebaluatzeko gaitasuna (errealitatearen azterketa).</li> <li>• Gizarte, hezkuntza eta kultura politiken ezagutza.</li> </ul>
<p>Hezkuntza programa eta proiektuen diseinua, inplementazioa eta ebaluazioa</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gizarte-hezkuntza jarduera arautzen duten oinarriko dokumentuak formalizatzeko gaitasuna: zentroaren proiektua, barne erregimenerako araudia, lanaren plangintza, banakako hezkuntza-proiektua eta beste gizarte-hezkuntza txosten batzuk.</li> <li>• Irakaskuntza-programen eta /edo ekintzen plangintza, programazio eta diseinurako teknikak menderatzea.</li> <li>• Ebaluatze metodoetarako teknikak ezagutza.</li> <li>• Hezkuntza instituzio eta baliabideen kudeaketa, zuzendaritza, koordinazioa eta antolakuntza.</li> </ul>
<p>Hezkuntza instituzio eta baliabideen kudeaketa, zuzendaritza, koordinazioa eta antolakuntza.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Programa, ekipamendu eta giza baliabideen zuzendaritzarako eredu, teknika eta estrategiak menderatzea.</li> <li>• Trebetasuna proiektu, programa, zentro eta hezkuntza baliabideen kudeaketan.</li> <li>• Gizarte eta/edo hezkuntza izaerako erakunde eta elkarteak antolatzeko eta haien hezkuntza zerbitzuen kudeatzeko gaitasuna.</li> <li>• Eskainitako zerbitzua aintzat harturiko helburuen arabera ikuskatzeko gaitasuna.</li> <li>• Proiektuen zabalkunderako teknikak eta estrategiak menderatzea.</li> </ul>



## I. ERANSKINA

Harturiko erabakiaren arabera, Gizarte Hezitzailearen esparru eta perfil posibleen gaineko dokumentu bat erantsi ahal izango dute elkarteek eta erakundeek dokumentua hau beren lurraldeetan banatzean, hala jokatzeari egoki iritziz gero.

(Bilera Kolegiatua. Murtzia, 2006ko abenduaren 16an).







**ASEDES**  
asociación estatal  
de educación social



**CGCEES**  
Consejo General de Colegios de  
Educadoras y Educadores Sociales

# Profesionalizaziorako dokumentuak

Gizarte hezkuntzaren definizioa.

Gizarte hezitzailearen kode deontologikoa.

Gizarte hezitzailearen funtzio eta gaitasunen katalogoa.